





2

HARA! Azkenean mundu magiko eta liluragarri hau ezagutu eta ikertu nahi duen norbait. Arbaso, azti, sakratu eta Euskal Herriko jainko jainkosei buruz jakin nahi duen norbait.

Askok zoroen asmakizun hutsak direla pentsatuko duzue, inon eta inongo liburuetan agertzen ez diren asmakizun zoroak.

Nik, ondo hausnartu, begiak ireki eta mitologiaren mundu magiko honetan barna nirekin bidaiatzeko gonbidapena egiten dizuet....

... Etorri nahi al duzue?

(HURRENGO ORRIRA PASA)

iANDA! Por fin alguien que quiere conocer e investigar este mundo mágico y fascinante. Alguien que quiere saber sobre antepasados, magos, criaturas sagradas y dioses y diosas de Euskal Herria, la tierra vasca.

Muchos pensaréis que no son más que cuentos de chiflados, locas invenciones que no aparecen en ningún libro.

Yo os invito a que reflexionéis, abráis los ojos y viajéis conmigo a través de este mundo mágico...

... ¿Queréis venir?

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)





3

AI AMA! Erabat ahaztu zait, ni nor naizen esatea. Ni Maritxu sorgina naiz. Aralarko mendizerran bizi naiz eta Mariren, gure jainkosaren, lehengusina naiz.

Ez dakizuela nor den Mari? Ea bada etor zaitetze euskal mitologiaren 7 munduetan barna nirekin bidaiatzera eta mitologiako pertsonai ezagunenak ezagutzera.

ADOS? Goazen mundu magiko honetan barna bidaiatzera! Jajajaja

iAI AMA! Se me ha olvidado por completo deciros quién soy yo. Soy la Sorgina Maritxu, una bruja. Vivo en la sierra de Aralar, y soy la prima de Mari, nuestra diosa.

¿No sabéis quién es Mari? Bueno, bueno ... Venid conmigo a viajar a través de la mitología vasca y conoceréis sus 7 mundos mágicos.

¿Vale? ¡Vamos a viajar por este mundo mágico! Jajajaja

(HURRENGO ORRIRA PASA)

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)





4

Ongi etorriak, Mari eta bere senideen mundu magiko honetara!

(ORRIA ERDIRARTE PASA)

Hau Mari da, euskal mitologiako jainkosa nagusia, nire lehengusina eta Anboto mendian bizi dena.


(HURRENGO ORRIRA PASA)

¡Bienvenidos a este mundo mágico, el mundo de Mari y su familia!

(PASAR LA HOJA HASTA LA LÁMINA)

Esta es Mari, la diosa más importante de la mitología vasca, mi prima. Ella vive en el monte Anboto.

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)





5

Hauek berriz, Atarrabi "ongia" eta Mikelats "gaizkia" dira, Mari eta Sugaarren semeak.

Atarrabi zaharrena da eta Mikelats gazteena, biak Sarako kobazuloetan bizi dira.


(HURRENGO ORRIRA PASA)

Y estos son Atarrabi, el bien, y Mikelats, el mal. Son los hijos de Mari y Sugaar..

Atarrabi es el hijo mayor y Mikelats el menor. Los dos viven en las cuevas de Sara.

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)





6

Hau berriz, erraldioen mundu miresgarria da. Hemen, gure artean bizi izan diren, bizi diren eta biziko diren erraldoiak bizi dira. Ez izan beldurrik pertsonai haaaaandiak izan arren, gehienak oso bihotz onekoak baitira. Goazen bada!

(HURRENGO ORRIA PISKA BAT PASA)

Hau Basajaun da

(HURRENGO ORRIA BESTE PISKA BAT PASA)

Eta hau Basandere! Biak artaldeak zaintzen ibiltzen dira eta zuek gizakiok beldurra diezuen arren, oso bihotz onekoak dira, 5 metroko altuera izan arren.

(HURRENGO ORRIA BESTE PISKA BAT PASA)

Hau ... Ezagutzen duzuela badakit! Bai Tartalo da!

**(BURLATI)** Kopetan begi bakarra duen erraldoi beldurgarria da. Bere zaletasunetako bat 200 kiloko harriak jaurtitzea da.

(HURRENGO ORRIA BESTE PISKA BAT PASA)

Eta hau? Jentila da, Tartalok duen zaletasun berdina duen 4 metro inguru neurtzen dituen erraldoi jakintsua.

(HURRENGO ORRIRA PASA)

¡Venid, Venid!

Este otro, es el maravilloso mundo de los gigantes. Aquí viven los gigantes que han vivido, viven y vivirán entre nosotros. No tengáis miedo, aunque son criaturas grandes, la mayoría tienen un gran corazón. ¡Vamos!

(PASAR UN POCO LA LÁMINA)

Este es Basajaun

(PASAR UN POCO MÁS LA LÁMINA)

¡Y esta Basandere! Los dos suelen estar cuidando de las ovejas y, aunque vosotros los humanos les tenéis miedo, son muy buenos, ¡y eso que miden 5 metros!

(PASAR UN POCO MÁS LA LÁMINA)


¡A y este... ya se que lo conocéis! ¡Sí, es Tartalo!

**(BURLÁNDOSE)** Un gigante terrorífico que tiene un solo ojo. Una de sus aficiones es lanzar piedras de 200 kilos.

(PASAR UN POCO MÁS LA LÁMINA)

¿Y este? Este es el Jentil, es un gigante muy sabio que mide 4 metros y tiene la misma afición que Tartalo.

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)





7

Hara! Eta mundu honetan falta zena! Herensugea edo zuek deitzen duzuen bezala Dragoia, sua jaurtitzen duen Deabruaren langilea!

Puffff!! Nekatuak dagoeneko? Ni oso ... , baina ... lasai egon gure bidaiak aurrera egingo du eta!

**(BAXUAGO)** Oraingoan, mundu ñimiño bat ezagutzeko aukera emango dizuet ...

**(POLIKI POLIKI HURRENGO ORRIRA PASA)**

¡Anda! ¡Y el que faltaba en este mundo! Herensugea, o Dragón como vosotros le llamáis, el que echa fuego, ¡el trabajador del diablo!,

Puffff!! ¿Ya estáis cansados? Yo mucho... , pero ... ¡tranquilos que nuestro viaje sigue adelante!

**(EN BAJO)** Ahora, os daré la oportunidad de conocer un mundo diminuto...

**(PASAR LENTAMENTE A LA SIGUIENTE LÁMINA)**





8

Noizbait etzun al dituzue Iratxo eta Deabrutxo hitzak?  
Ez? A bai! Ba hementxe bizi dira pertsonaia nimino hauek.  
Etorri etorri ...

(HURRENGO ORRIA PISKA BAT PASA)

Hauek Galtzagorriak dira, zuek ezagutzen dituzuen  
Iratxoen lehengusu eta lehengusinak. Iratxoak bezala oso  
animalitxo maitagarriak dira eta beti daude jendea, zuek ,  
laguntzeko prest. Bai bai !

(HURRENGO ORRIA BESTE PISKA BAT PASA)

Hara! Eta hauek? Mikolasak dira! Zertan ari dira? Bai bai,  
harri bat mugitzen ari dira deabrutxo txiki hauek. Beti  
taldean ibiltzen dira eta oso langileak dira.

(HURRENGO ORRIA BESTE PISKA BAT PASA)

(**BELDURREZ**) Ai ama! eta Inguma? Ezagutzen al duzue  
Inguma? Amets gaiztorik izan al duzue noizbait? Ba berak  
eragindakoak izango dira. Ai.....

(HURRENGO ORRIRA AZKAR PASA)

¿Alguna vez habéis oído las palabras Iratxo o  
Deabrutxo? ¿No? ¡A sí! Pues esos personajes pequeñitos  
viven aquí.

Bienvenidos ...

(PASAR UN POCO LA LÁMINA)

Estos son los Galtzagorris, los primos y primas de los  
Iratxos o duendes que conocéis vosotros. Como los  
Iratxos, estos también son unos animalitos encantadores  
y siempre están dispuestos a ayudar a la gente, ¡a  
vosotras y vosotros! ¡Sí sí!

(PASAR UN POCO MÁS LA LÁMINA)


¡Anda! ¿Y estos? Son los Mikolasas! ¿Qué están  
haciendo? Sí sí, estos pequeños diablillos están moviendo  
una piedra. Siempre andan en grupos y son muy  
trabajadores.

(PASAR UN POCO MÁS LA LÁMINA)

(**CON MIEDO**) Ai ama! ¿ Inguma? ¿Conocéis a Inguma?  
¿Habéis tenido pesadillas alguna vez? Pues las causa él.  
Ai.....

(PASAR RÁPIDAMENTE A LA SIGUIENTE LÁMINA)





9

**(BELDURREZ)** Eta bi hauek? Ikusten al dituzue? Lehena Gaueko omen da, gaua. Gauean ateratzen zareten edo diren pertsonak zigortzen omen ditu ....


**(ALAI)** Eta bigarrena Gauargi da, gauean galtzen zaretenoi edo direnoi argia ematen ibiltzen den iratxo txiki, bihurria.

**(HURRENGO ORRIRA AZKAR PASA)**

**(CON MIEDO)** ¿Y estos dos? ¿Los podéis ver? El primero es Gaueko, la noche. Al parecer castiga a todo el que sale por la noche ....

Y el segundo es Gauargi, un duendecillo travieso que alumbra a todos los que salen por la noche.

**(PASAR RÁPIDAMENTE A LA SIGUIENTE LÁMINA)**





10

**(BELDURREZ)** Eta hau? Eta hau? Puff ... .. Mundu honetara sartzeak ere oilo ipurdia jartzen dit! Izugarritzko beldurra ematen dit mundu honek, bertan bizi diren izakiak galduta baitaude! Ez ditu inork inoiz ikusi baina bai sentitu eta entzun!

**(AZKAR)** Bertan Mateo Txistu, Etxejaun, Erio eta Maide bizi omen dira.

Beldurra daukat! Sartuko gara izaki beldurgarri hauen mundura? Ai ama .....

Ez ez ez ez! Goazen, goazen hemendik azkar batean haiek konturatu baino lehen ...

**(HURRENGO ORRIRA AZKAR AZKAR PASA)**

**(CON MIEDO)** Y, y... ¿y este? ¡Puff! ... .. solo con entrar a este mundo se me pone la piel de gallina. Me da un miedo terrible este mundo, ¡porque los seres que lo habitan están perdidos! No los ha visto nadie, ¡pero si que se sienten y se oyen!

**(RÁPIDO)** Aquí se cree que viven Mateo Txistu, Etxejaun, Erio y Maide.

¡Tengo miedo! ¿Entramos en este mundo terrorífico?

¡No no no no! Vámonos, vámonos de aquí rápido antes de que se den cuenta...

**(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA RÁPIDAMENTE)**





11

Uffff !! Eskerrak ez direla azaldu!

Ai eta mundu hau ez da edonolakoa ere. Hemen erdi animalia erdi gizaki diren izakiak bizi dira. Horregatik, erdi gizaki erdi animalien mundua deitu izan zaio Euskal Mitologian.

Ziur nago, hemen bizi diren ... **(ZALANTZAZ)** gizaki edo animaliak ... ezagutzen dituzuela, oso ezagunak baitira.

(HURRENGO ORRIA PISKA BAT PASA)

Begira begira, hau nor da? Sirena? Ez ... euskaraz Lamia deitzen diogu.

**(ZALANTZAZ)** Erdi emakume erdi arrain edo ahate den izaki eder honi.

(HURRENGO ORRIA BESTE PISKA BAT PASA)

Eta hau? Badakit ezagutzen duzuela! Gizotso da, erdi gizon erdi otso den izakia.

(HURRENGO ORRIRA PASA)

¡Uffff! Más vale que no han aparecido!

"Ai" y este tampoco es un mundo cualquiera e. Aquí viven seres que son medio animales medio humanos. Por eso en la mitología vasca se le llama el mundo de los medio humanos medio animales.

Estoy segura de que conocéis los seres o animales que viven aquí, porque son muy conocidos.

(PASAR UN POCO LA LÁMINA)


¿Mirad mirad, quién es esta? ¿Sirena? No ... en Euskara le llamamos Lamia a este ser medio pez medio mujer.

(PASAR OTRO POCO LA LÁMINA)

¿Y este? ¡Ya se que lo conocéis! Es gizotso, un ser que es medio hombre medio lobo, el hombrelobo.

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)





12

Eta hau? Agian ez duzue ezagutuko! Gogoratzen al zarete Mari, nire lehengusin ederraz? Bai ... Mikelats eta Atarrabiren amaz, bai! Ba hau Sugaar da bere senarra.

Nik gutxitan ikusi izan dut, baina gure amonak esaten duenez, haserretzen denean, suge bihurtu eta ekaitzak sortzen omen ditu.

**(BELDURREZ)** Ai, ai, ai ... .. Goazen goazen Sugaar haserretu baino lehen!!!

**(ORRIA PASATZEN HASI ETA BAT-BATEAN GERATU)**

Edo jadanik aspertu zarete? Bidaiatzen jarraitu nahi duzue? Bi mundu geratzen zaizkigu!

**(POZIK)** Hori da! ... .. Goazen gure bidai magiko honetan aurrera!

**(HURRENGO ORRIRA PASA)**

¿Y este? ¡Igual no lo conocéis! ¿Os acordáis de Mari, mi guapa prima? Sí ... la madre de Mikelats y Atarrabi, sí! Pues este es Sugaar, su marido.

Yo lo he visto pocas veces, pero según dice nuestra abuela cuando se enfada se convierte en serpiente y provoca tormentas.


**(CON MIEDO)** Ai, ai, ai ... .. ¡¡¡Vámonos, vámonos antes de que Sugaar se enfade!!!

**(EMPEZAR A PASAR ESTA LÁMINA Y PARAR DE REPENTE)**

¿O ya os habéis aburrido? ¿Queréis seguir viajando? ¡Nos quedan dos mundos!

**(CONTENTA)** ¡Eso es! ... .. ¡Vamos adelante en este viaje mágico!

**(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)**





13

Eskerrak, mitologiaren mundu magiko honetan barna bidaiatzen jarraitzea erabaki duzuela.

Ikusi al duzue mundu magiko hau? Naturaren mundua hain zuzen! Hemen naturarekin lotura duten izaki eta jainkosak bizi dira.

Hementxe duzuen Amalur da (**LASAI LASAI**), lurraren ama, Marirekin batera euskal mitologiako pertsonai garrantzitsuena, bere barruan izugarrizko altxorrak gordetzen dituena.

(HURRENGO ORRIA PIXKA BAT PASA)

Eta hau, Lanaide da, lainoaren jainkosa.

(HURRENGO ORRIA BESTE PIXKA BAT PASA)

Eta hau? Ezagutzen duzue? Traganarru da! Itsasoan bizi den jainkoa da eta itsasoan dabiltzan itsasontzi eta arrantzaleak irensten omen ditu.

(HURRENGO ORRIRA PASA)

Qué bien que habéis decidido seguir en este viaje a través de este mundo mágico de la mitología.

¿Habéis visto este mundo mágico? ¡El mundo de la naturaleza precisamente! Aquí viven los dioses y diosas unidos a la naturaleza.

La que tenéis aquí es Amalur (**POCO A POCO**), la madre de la tierra, el personaje más importante de la mitología vasca junto con Mari, la que guarda tesoros impresionantes en su interior.


(PASAR UN POCO LA LÁMINA)


Y esta es Lanaide, la diosa de la niebla.

(PASAR UN POCO MÁS LA LÁMINA)

¿Y este? ¿Lo conocéis? es Traganarru! Es el dios que vive en el mar y dicen que se traga a los barcos y los pescadores que andan en el mar.

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)





14

Eta hauek? Ortzi, Eguzki eta Ilargi dira.

Ortzi zeruko jainko ahalguztiduna da, hemen, lurrean, egiten duen eguraldia kontrolatzen duena.

Eta Eguzki eta Ilargi egunero egunero ikusten ditugun Amalurren alabak dira.

**(NEKATUA)** Puff!! Oso nekatua nago, etxerako bidea hartu beharko dut, bestela amona Kontxi haserretu egingo zait!

**(TRISTE)** Lastima! Agurtzeko ordua dela uste dut! Oh! Zer nolako pena!

Aizueeeee!!!!!! Baina baina ... .. Esaten didate etxean desastre hutsa naizela eh .... Nire mundua falta zaizue ezagutzeko!!!

Etxera lagunduko al didazue? Horrela sorginen mundua ezagutuko duzue.

Etorri, etorri nirekin !!!

(POLIKI POLIKI HURRENGO ORRIRA PASA)

¿Y estos? Son Ortzi, Eguzki e Ilargi.

Ortzi es el dios todopoderoso del cielo, el que controla el tiempo que hace aquí en la tierra.

Y Eguzki e Ilargi, las hijas de Amalur que vemos todos los días.

**(CANSADA)** ¡¡Puff!! Estoy muy cansada, tendré que ir yendo hacia casa, ¡si no la abuela Kontxi se me va a cabrear!


**(TRISTE)** ¡Lastima! ¡Creo que va siendo la hora de despedirnos! ¡Oh! ¡Que pena!

iiiiiiOyeeee!!!!!! Pero, pero ... .. ya me dicen en casa que soy una desastre .... ¡¡¡ pero si me falta de enseñaros mi mundo!!!

¿Me acompañáis a casa? Así conoceréis el mundo de las Sorginas (brujas).

iiiVenid, venid conmigo!!!

(PASAR LENTAMENTE A LA SIGUIENTE LÁMINA)





15

Azkenean etxean! (**BURLATI**) Ui beldurtuak al zaudete?  
Mesedez!!!!

Historian zehar Sorginok pertsonai itsusi eta gaizto bezala deskribatu gaituzte, baina ez da horrela.

Guk, Sorginok, botere berezi batzuk baditugu baina beharrezkoa denean bakarrik erabiltzen ditugu, gauerdiko bileretan normalean.

Seguruenik, zuek, bilera hauek Akelarre izenarekin ezagutzen dituzuela. ... ..

(**OSO BAXU**) Begira begira. Bilera hauek asteko edozein egunetan ospatzen ditugu baina normalean astelehen, asteazken eta ostiraletan izaten dira. Bertara, Euskal Herriko sorgin guztiak joaten gara eta primeran pasatzen dugu, dantzan eta kantuan, jajajaja.

Xu!!!! (**ITXOIN**)

(**HASERRE**) Zer entzun dut? Nork esan du hori?  
Norbaitek erdiko munstro itsusi hori nor den galdetu du?  
Hori Akerbeltz da!

(**MAITEMINDUTA**) Akelarreko jaun handia!

(AZKAR AZKAR HURRENGO ORRIRA PASA)

¡Por fin en casa! (**BURLÁNDOSE**) Ui ¿tenéis miedo? ¡¡¡¡Por favor!!!!

A lo largo de la historia a las brujas nos han descrito como personajes feos y malvadas, pero no es así.

Nosotras, las Sorginas, tenemos unos poderes especiales, pero solo los usamos cuando es necesario, normalmente en las reuniones de medianoche.

Seguro que vosotras y vosotros llamáis a estas reuniones Akelarres...

(**MUY BAJO**) Mirad mirad, aquí. Estas reuniones las hacemos cualquier día de la semana, pero normalmente son los lunes, los miércoles y los viernes. A estas reuniones vienen Sorginas de todo Euskal Herria y lo pasamos muy bien bailando y cantando, jajaja.

¡¡¡Shu!!!! (**Y ESPERAR**)

(**ENFADADA**) ¿Qué he oído? ¿Quién ha dicho eso?  
¿Alguien ha preguntado quién es ese monstruo feo? ¡Ese es Akerbeltz!

(**ENAMORADA**) ¡El gran señor del Akelarre!

(PASAR RÁPIDAMENTE A LA SIGUIENTE LÁMINA)





16

Gaurkoz aski duzue! Nik joan beharra daukat eta!

**(TRISTE)** Oraingoan bai! Iritsi da agur esateko ordua.

Agur? Agur? Agur ez! Geroarte! Ez baituzue ahaztu behar edozein lekutan, edozein momentutan ... Gutako edonor agertu daitekeela zuen artera ... ..

**(POLIKI POLIKI HURRENGO ORRIRA PASA)**

**IZENA DUEN GUZTIA OMEN DELAKO!**

**ONGI PASA!!!!!!**

**(HURRENGO ORRIRA PASA)**

EGILEA: Alazne Oroz Artano

MARRAZKILARIA: Garikoitz Perurena de Blas

KOORDINAZIOA: Carmen Aldama

"Kamishibai Tailerra" Iruñeko ILZ. (2011- 2012 ikasturtea)

¡Por hoy tenéis suficiente! ¡Que yo me tengo que ir!

**(TRISTE)** ¡Esta vez sí! Ha llegado el momento de despedirse.

¿Agur? ¿Agur? ¡Agur no! ¡Hasta luego! Porque no tenéis que olvidar que en cualquier momento, en cualquier lugar... cualquiera de nosotros/as puede aparecer entre vosotros y vosotras.

**(PASAR LENTAMENTE A LA SIGUIENTE LÁMINA)**

**¡PORQUE TODO LO QUE TIENE NOMBRE SERÁ!**

**¡¡¡¡ONGI PASA!!!!!!**

**(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)**

AUTORA: Alazne Oroz Artano

ILUSTRADOR: Garikoitz Perurena de Blas

COORDINADORA: Carmen Aldama

"Taller de Kamishibai" CAP Pamplona. (Curso 2011-2012)





1

**IZENA DUEN GUZTIA OMEN DA!**

**ISI TIENE NOMBRE SERÁ!**

(HURRENGO ORRIRA PASA)

(PASAR A LA SIGUIENTE LÁMINA)